



**ARANTZAKO UDALA**

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7  
31790 ARANTZA (Nafarroa)  
© 948 634 005  
☎ 948 634 192  
arantza.udala@arantza.eu  
www.arantza.eu

## 2015EKO URRIAREN 9KO BILERAREN AKTA

**Organoa:** Udalbatza.  
**Batzarra:** Bilera arrunta.  
**Deialdia:** Lehenengoa.  
**Eguna:** 2015.10.09.  
**Ordua:** Arratsaldeko 19:00etan.  
**Tokia:** Herriko Etxeko areto nagusia.

### **Bertaratuak:**

Alkatea: Juan Miguel Almandoz Mitxelena jn.  
Zinegotziak:

Mentxu Peña Lizarazu and.  
Ander Almandoz Indakoetxea jn.  
Igor Ugalde Salazar jn.  
Jose Fco. Javier Mitxelena Ordoki jn.  
Juan M. Gonzalez Burguete jn.  
Iñigo Sarrias Zoco jn.

### **Bertaratu ez direnak:**

Inor ere ez.

### **Idazkaria:**

M. Jose Larraioz Ariztegi and.

### **Aztergaiak:**

- 1.-Azkeneko aktaren onespina.
- 2.-Simon Iturria Alzuri jauna: oihan probetxamendu eskaera.
- 3.-M.Asuncion Bereau Vergara andrea: oihan probetxamendu eskaera.
- 4.-Euskal Herriko Emakumen mundu martxa: adierazpen instituzionala.
- 5.-Amnesty International Euskadik igorritako dokumentua.
- 6.- Nafarroako Fusilatutako Senitartekoen Elkartearen mozioa.
- 7.-Kontseilua: diru laguntza eskaera.
- 8.-Joxe Jabier Gonzalez Lukanbio jauna:obra baimen eskaera.
- 9.-Pellettikiko ordutegia zabaltzeko eskaera.
- 10.-Jose Benito Lizardi Bereau jauna: bideari buruzko eskaera.
- 11.-2015eko aurrekontuaren aldaketa: hasierako onespina.
- 12.-2016. urtean langabetuak kontratatzeko diru laguntza deialdia.
- 13.- 2016. urteko tipoak, tasak eta prezio publikoak.
- 14.-Alkatearen ebazpenak.
- 15.-Eskaerak eta galderak.

### **1.-AZKENEKO AKTAREN ONESPENA.**

2015eko irailaren 3an egindako bileraren akta ikusi ondoren, aho batez, ONARTU DUTE, aldaketa honekin: 12. puntuan, “Landondotik Makabara” adierazten den lekuan “herritik Makabara” erran behar du.

## **2.-SIMON ITURRIA ALZURI JAUNA: OIHAN PROBETXAMENDU ESKAERA.**

Simon Iturria Alzuri jaunak, Larraineko Bordan, pinu insignisen probetxamendua egiteko eskaera ikusirik (matarrasa, 1. poligonoko 97. lur zatian).

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Simon Iturria Alzuri jaunari eskatutako oihan probetxamendu eskaerari aldeko txostena ematea, probetxamendua hasi aurretik balorazioaren %15eko fidantza aurkezteko baldintza pean.

2) Eskaera Nafarroako Gobernuko Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazioko Departamentura bidaltzea.

3.) Eskatzaileari jakinaraztea baimen hau hirugarren baten baimenak baldintzatzen ahal duela.

## **3.-M.ASUNCION BEREAU VERGARA ANDREA: OIHAN PROBETXAMENDU ESKAERA.**

M.Asuncion Bereau Vergara andreak, Gazteluneko Bordan, alertzeen probetxamendua egiteko eskaera ikusirik (matarrasa, 5. poligonoko 408. lur zatian).

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) M.Asuncion Bereau Vergara andreari eskatutako oihan probetxamendu eskaerari aldeko txostena ematea, probetxamendua hasi aurretik balorazioaren %15eko fidantza aurkezteko baldintza pean.

2) Eskaera Nafarroako Gobernuko Landa Garapen, Ingurumen eta Toki Administrazioko Departamentura bidaltzea.

3) Eskatzaileari jakinaraztea baimen hau hirugarren baten baimenak baldintzatzen ahal duela.

## **4.-EUSKAL HERRIKO EMAKUMEN MUNDU MARTXA: ADIERAZPEN INSTITUZIONALA.**

Ikusirik Euskal Herriko Emakumeen Mundu Martxari buruz hartutako adierazpen instituzionala.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Emakumeen Mundu Martxari babesa ematea eta bere esku dauden baliabideen berdintasunaren alde lan egiteko eta neurriak hartzeko konpromisoa hartzea helburu hauekin:

-indarkeriari dagokionez, ekintza protokoloak martxan jarri, sentsibilizazioan lan egin eta indarkeria matxistari dagokion formakuntzak burutzea. Halaber, EMMren protokoloari gure babesa adierazten diogu eta indarkeria sexistaren aurkako salaketa eta deialdiekin bat egiteko konpromisoa hartzen dugu.

-zaintzaileen bizitzak hobetzeko lan egitera eta zaintza lanak errazteko zerbitzu publikoak ahalbidetzera.

-aniztasun sexuala eta genero identitatea kontuan izanik lan egitea, eta lesbofobia, transfobia, arrazismoa eta kapazitismoaren aurkako planak burutzea.

-emakumeen jabeakuntza sustatzea eta baita saretze eta emakume taldeen sorrerak bultzatzea.

2) Akordio honen berri Xorroxin Irratia eta Ttipi-ttapari ematea.





**ARANTZAKO UDALA**

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7  
31790 ARANTZA (Nafarroa)  
☎ 948 634 005  
☎ 948 634 192  
arantza.udala@arantza.eu  
www.arantza.eu

## **5.-AMNESTY INTERNATIONAL EUSKADIK IGORRITAKO DOKUMENTUA.**

Ikusirik Amnesty International erakundeak igorritako dokumentua, giza eskubideen urraketa larrietatik ihesi Europara babes bila datozen milaka pertsonen aurrean.

Aho batez ERABAKI DUTE, Espainiako gobernuari ondorengoak eskatzea:

1) Eman diezaiela merezi duten erantzuna lau milioitik gora errefuxiatuei, legezko bide seguruak eskainiz. Behar-beharrezkoa da birkokatze-kupoa nabarmen handitzea, bisa humanitario gehiago ematea eta familiak bateratzeko erraztasunak eskaintzea. Lehentasuna eman behar die arriskuan dauden emakume eta neskatxei, behar medikoak edo ahalmen urritasunak dituzten pertsoneri eta babes-behar bereziak dituztenei.

2) Susta dezala nazioartekak martxan jartzea Siriako biztanleria zibila babesteko ekintzak, baita nazioarteko zuzenbidea urratzen duten krimenak prebenitzeko ekintzak ere, gerrako krimenak eta humanitatearen aurkako krimenak barne.

3) Eska diezaiola Nazio Batuen Erakundeko Segurtasun Kontseiluari Siriako auzia Nazioarteko Zigor Gortera eramateko, eta agin dezala Bashar Al-Asad presidentearen eta haren hurbileko laguntzaileen aktiboak izoztea.

4) Susta dezala Siriako gobernuari egiten zaizkion arma-transferentziak bertan behera uztea. Eragotz dezala giza eskubideen edo nazioarteko zuzenbide humanitarioaren urraketa larriak gauzatu dituzten siriar talde armatuei armak eta bestelako laguntza militarra ematea. Berehala ezar dezala Estatu Islamikoaren indarrei munduko edozein herrialdetan arma guztiak enbargatzeko agindua.

5) Babes finantzario nahiz tekniko handiagoa eskain diezaiola Nazio Batuek Siriako krisiari aurre egiteko proposatu duten Eskualdeko Erantzun Planari.

## **6.-NAFARROAKO FUSILATUTAKO SENITARTEKOEN ELKARTEAREN MOZIOA.**

Ikusirik Nafarroako Fusilatutako Senitartekoen Elkarteak igorritako mozioa.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1)Udal honek, gerra zibilean Nafarroan hildako lagunak omendu eta oroitzearen aldeko borondatearen adierazgarri, eta bereziki, frankismoak mendekatutako emakumeak omendu nahian, 100,00 euro eman nahi ditu, Oroimenaren Parkean ezarriko den "reconstrucción/berreraikitzea" eskultura eraiki eta jartzeko.

2) Onarpen hau Nafarroako Fusilatutakoen Senitartekoen Elkartearen egoitzara eta Alargunen Herria Elkartearenera bildaltzea.

## **7.-KONTSEILUA: DIRU LAGUNTZA ESKAERA.**

Ikusirik Euskararen Gizarte Erakundearen Kontseiluak igorritako diru laguntza eskaera 2015eko helburua eta kudeaketa plana erantsiz.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Kontseiluari 100,00 euroko diru laguntza ematea.

2) Kontseiluari 2014ko kontuen informazioa eskatzea.

## **8.-JOXE JABIER GONZALEZ LUKANBIO JAUNA: OBRA BAIMEN ESKAERA.**

Ikusirik Joxe Jabier Gonzalez Lukanbio jaunak aurkeztutako baimen eskaera, baserri ondoan parrilla jartzeko (5. poligonoko 198. lur zatian) eta herriko gaztain bat eta bi haritz (5. poligonoko 104. lur zatian) su egurra moduan probexteko.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

- 1) Joxe Jabier Gonzalez Lukanbio jaunari obra baimena ematea parrilla jartzeko, aurkeztutako eskaera eta Arantzako Arau Subsidiarioen arabera.
- 2) Obraren ezaugarri, pertsonen segurtasun eta garbiketari dagokionez Arantzako Arau Subsidiarioek agintzen dutena bete beharko duela jakinaraztea.
- 3) Eskatzaileari jakinaraztea segurtasun eta osasun gaian bete beharraren obligazioa obraren sustatzailearena dela eta edozein erantzukizuna bere gain izanen dela.
- 4) Eskatzaileari jakinaraztea obran sortutako hondakinak 23/2011 Foru Dekretuaren arabera kudeatu beharko duela.
- 5) Eskatzaileari jakinaraztea baimen hau hirugarren baten baimenak baldintzatzen ahal duela.
- 6) Eskatzaileari jakinaraztea baimen honen iraupena hauxe dela: urte bat lanak hasteko eta hiru urte bukatzeko.
- 7) Zuhaitzak probexteko baimena ematea, beti ere, mendizainaren aldeko txostena izan ondoren.

## **9.-PELLE TTIKI-KO ORDUTEGIA ZABALTZEKO ESKAERA.**

Ikusirik Koldobike Gorostiza Uriguen andreak aurkeztutako idatzia, Pelle tti-ko haur eskolaren ordutegia zabaltzeko eskaera, guraso batzuen eskaerak bilduz.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

- 1) Dindaiari Fundazioari eskolaren ordutegia aldatzeko eskatzea, goizeko 9:00etatik eguerdiko 14:30ak arte jarritz, beti ere, urriaren 15etik aurrera eta 2015-2016 ikasturterako (hezitzailea goizeko 9:00etan hasiko da lanean eta ez 8:30etan orain arte bezala).
- 2) Gurasoei kuota hauek ezartzea: 130,00 euro (goizeko 9,00etik eguerdiko 13:00ak arte) eta 150,00 euro (goizeko 9,00etik eguerdiko 14:30ak arte). Famili berako haur bat baino gehiagoko kasuetan: 100,00 euro/haur bakoitza (goizeko 9,00etik eguerdiko 13:00ak arte) eta 115,00 euro/haur bakoitza (goizeko 9,00etik eguerdiko 14:30ak arte).
- 3) Kolbobike Gorostiza Uriguen andreari baimena ematea Pelle Tiki egoitza erabiltzeko 14:30etik 15:30ak arte.
- 4) Ordezkapenengatik Dindaiari ordaintzen den kopurua aztertzea segitu ala ez segitu erabakitzeko.

## **10.-JOSE BENITO LIZARDI BEREAU JAUNA: BIDEARI BURUZKO ESKAERA.**

Ikusirik Jose Benito Lizardi Bereau jaunak aurkeztutako idatzia 3. poligonoko 71. eta 134. lur zatiak elkartzeko katastroko aldaketa egiteko eskatuz, dagoen bidea kenduz.

Ikusirik Nafarroako Gobernuko Lurraldearen Aberastasun Zerbitzuko txostena, non bidea 1990ko katastro berria egin zenean sartutako bide publikoa dela.





## ARANTZAKO UDALA

IFZ: P 3102200 G

Herriko Plaza, 7  
31790 ARANTZA (Nafarroa)  
☎ 948 634 005  
☎ 948 634 192  
arantza.udala@arantza.eu  
www.arantza.eu

Kontuan izanik katastro berria egin zenean jendaurrean jarri zela eta ez zela alegaziorik aukeztu.

Kontuan hartuz, Nafarroako entitate lokalen Ondasun Arautegia onesten duen 280/1990 Foru Dekretuaren 25.artikuluaren arabera, Nafarroako entitate lokalek beren ondareko ondasun eta eskubideak kontserbatu, babestu, berreskuratu eta hobetzearen ardura hartuko dutela, eta horiek babesteko beharrezkoak diren ekintzak burutu behar dituztela

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Jose Benito Lizardi Bereau jaunak 3. poligonoko 71. eta 134. lur zatiak elkartzeko katastroko aldaketa egiteko eta dagokion bidea kentzeko aurkeztutako eskaera ez onartzea.

2) Akordio hau Jose Benito Lizardi Bereau jaunari jakinaraztea.

### **11.-2015EKO AURREKONTUAREN ALDAKETA: HASIERAKO ONESPENA.**

Ikusirik herriko argiteria Herriko plazan, Goiko Karrikan eta Eliza karrikan lurperatzeko Iberdrola empresaren proposanena (4.396,16 euro, BEZ barne).

Kontuan hartuz 2015eko aurrekontuan ez dagoela partidarik hori burutzeko.

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aurrekontuen eta gastu publikoaren alorretan garatzen duen irailaren 21eko 270/1998 Foru Dekretuaren 33. artikuluan xedatuari jarraikiz.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) 2015eko aurrekontuaren 3. aldaketa egiteko espedientea hasiera batean onestea.

2) Espedientea Idazkaritzan egonen da ikusgai hamabortz egun baliiodunean, iragarki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta biharamunetik hasita, bizilagun edo interesdunek azter dezaten eta egokiak iruditzen zaizkien erreklamazioak aurkez ditzaten.

### **12.-2016. URTEAN LANGABETUAK KONTRATATZEKO DIRU LAGUNTZA DEIALDIA.**

Idazkariak adierazi du langabetuak kontratatzekeko urteroko deialdia bertan behera gelditu dela eta Nafar Gobernu berria prestatzen ari dela.

Gaineratu du orain argitaratu dela Nafarroako Enplegu Zerbitzuko zuzendari kudeatzaileak emandako 1950/2015 ebazpena. Honen bidez Nafarroako toki entitateei diru laguntzak emateko arauak ezartzen ditu, Gazteen Bermearen Sistemari inskribaturiko gazte langabetuak lan munduan txertatzea errazteko asmoz.

Hori dela eta, aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Herrian barne bando bat argitaratzea deialdia honen berri emanez, interesatuek izena eman ahal izateko.

### **13.- 2016. URTEKO TIPOAK, TASAK ETA PREZIO PUBLIKOAK.**

Aztertu ondoren indarrean dauden karga tipoak, tasak eta prezio publikoak.

Aho batez, ERABAKI DUTE:

1) Orain arteko karga tipoak, tasak eta prezio publikoak mantentzea eta ez igotzea.

**14.-ALKATEAREN EBAZPENAK.**

Alkateak azken bileratik emandako ebazpenen berri eman du (2015eko 82. ebazpenetik 97. ebazpena arte).

**15.-ESKAERAK ETA GALDERAK.**

Ez dira egin.

Bertzerik gabe, gaueko 10:00ak izanik, bilera amaitutzat jo dugu eta eztabaidatu eta erabakitakoa jasota geratzeko, agiri hau egin dut neronek, idazkariak, egiaztatuta.

O.E. ALKATEAK,

Juan Miguel Almandoz Mitxelena jn..

